

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

280/2026 Foru Agindua, uztailaren 28koa. Elciegoko udalerriko (Araba) Hiri Antolamendurako Plan Orokorren aldaketa puntualari buruzko ingurumen txosten estrategikoa egitea. Horren arabera honako hauek aldatzen dira: ELC.13. Ekialdeko upategi industrialen eremuko 1/244, 1/245, 1/246 eta 1/247 lurzatiei kalifikazioa, A-3210 errepidearen gaineko afekzioak, eta "Hirigune zaharretako upategien industria bereziko b.2.1 azpizonako eraikuntzari eta erabilerari buruzko ordenantza orokorraren" alderdi batzuk

Elciegoko hirigintza plangintzaren aldaketa puntualaren izapidetzea ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren (IEES) prozeduraren menpe dago; prozedura hori Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legeak arautzen dute. Ingurumen ebaluazioaren prozedura hau izapidetzea dela eta, sustatzailea Elciegoko Udala da, organo eskuduna Arabako Foru Aldundiko (AFA) Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saila, eta ingurumen organoa AFAko Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saila.

2025eko azaroan, Elciegoko Udalak ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua hasteko eskaera bidali zuen, eta harekin batera aldaketa puntualaren hirigintza dokumentua eta ingurumen dokumentu estrategikoa ere bai.

Dokumentazio hori jaso ondoren, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak erabaki zuen hilabeteko aldia hastea aldagatzen eraginpeko administrazio publikoek eta pertsona interesdunek kontsultak egiteko, 21/2013 Legearen 30. artikuluan eta 10/2021 Legearen 75. artikuluan xedatzen den bezala.

Kontsultak egiteko aldia amaituta, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Sailak ingurumen txosten estrategiko hau ematen du, 10/2021 Legearen 7. artikuluan ematen zaizkion eskudantziak baliatuz, Elciegoko udalerriko (Araba) Hiri Antolamendurako Plan Orokorren aldaketa puntualari buruz. Horren arabera honako hauek aldatzen dira: "ELC.13. Ekialdeko upategi industrialen eremuko" 1/244, 245, 246 eta 247 lurzatiei kalifikazioa, A-3210 errepidearen gaineko afekzioak, eta "Hirigune zaharretako upategien industria bereziko b.2.1 azpizonako eraikuntzari eta erabilerari buruzko ordenantza orokorraren" alderdi batzuk.

Ebazpen honek oinarritzat hartzen duen ingurumen txosten estrategikoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak eman du 2026ko ekainaren 16an (25/75 espedientea).

1. Elciegoko HAPOaren aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena.

IEES prozedura eragin duen aldaketa puntuala Construcciones Majuelo Garay SLk sustatu du. Horren arabera honako hauek aldatzen dira:

A) HAPOk ELC.13 Ekialdeko upategi industrialen eremuko b.2.2 "Upategi industrialen industria bereziak" azpizona (1/244, 245, 246 eta 247 lurzatiak) ELC.12 eremuko b.2.1 "Hirigune zaharretako upategien industria berezia" azpizonara (1.5.2.1 artikulua) pasatzen da.

B) A-3210 errepidearen, Mayor ibaiaren eta mugetarako tartearen gaineko afekzioak.

C) 1.5.2.11 artikulua: Hirigune zaharretako upategien industria bereziko b.2.1 azpizonako eraikuntzari eta erabilerari buruzko ordenantza orokorra.

A.) Lurzatiak Elciegoko Extramuros Sur kaleko 1., 3., 5. eta 7. zenbakietan daude, hirigunearen hegoaldean; hauek dituzte mugakide: iparrean, 1/243 lurzatiko plaza; ekialdean, A-3210 errepidea; mendebaldean, Mayor ibaia; hegoaldean, A-3210 eta A-3212 errepideen arteko lotunea. Aldatuko den eremuaren azalera:

- 1/244: 195,39 m².
- 1/245: 409,56 m².
- 1/246: 472,47 m².
- 1/247: 514,63 m².

1/245 eta 1/246 lurzatietakoa eraikinak BS+2+TS dira eta 1/247 lurzatikoak BS+1+TS, denak ere bizitegi erabilerakoak; 1/244 lurzatikoa BS da eta biltegi modura erabiltzen da.

Proposatutako HAPOaren aldaketaren irismena eta helburuak:

- Lurzati horiek ELC.12 Barrihuelo - Laguardiako errepidea eremuan sartzea, haietan dauden eraikinak bat datozelako, argi eta garbi, hirigune zaharren kontzeptuarekin; beraz, eremu hori egokiagoa da ingurua kontuan hartuta, eraikinek lotura estuagoa baitute inguruko gainerakoekin.

- Ordenantzaren hirigintza parametroak egokiagoak izatea lurzati horietan dauden eraikinetarako; horrela, noizbait jarduketak egin ahal izango dira eraikin horiek beste guztien baldintza berekin integratzeko beren ingurunean, hain zuzen ere egungo bilbea eta tipologiak mantenduta eta ez hausturarik ez distortsiorik eragin gabe.

B.) Gaur egun, A-321 errepideko atzerapena 14,00 metrokoa da errepidearen ardatzetik, eta horrek eragina dauka haren alboetan dauden eraikinetan, batez ere 1/247 eta 2/457 lurzatiakotetan.

- Aldatzea A-3210 errepideko ebakiduran ezarritako 14,00 metroko eraikuntza lerroa, haren alboetan dauden eraikinei eragiten diena (1/247 eta 2/457 lurzatiak), bizitegi erabilerakoak baitira; 2/456 lurzatiak ez dauka eraginik. Horrela, eraikinak bat etorriko lirateke A mailako hiri lurzoruko antolamenduarekin.

- Aldatzea Mayor ibaiaren ubidearen eta eraikuntza lerroaren arteko distantzia, 10,00 metrokoa, dauden bizitegi erabilerako eraikinei eragiten diena; eraikinak katalogatuta daude.

- Ezabatzea 1/245 lurzatiaren ekialdeko mugekiko 5,00 metroko tartea; izan ere, dauden eraikinen tipologia espazio publikoarekiko zuzeneko lerrokadurarekin mugatzen da, eta, horregatik, ez dauka zentzurik iparralderantz egin litekeen zabalkuntzak tarte hori bete behar izateak.

C.) Hirigune zaharretako upategien industria bereziko b.2.1 azpizonako eraikuntzari eta erabilerari buruzko ordenantza orokorreko eraikuntzaren baldintzen parametro batzuk aldatzea planteatzen da.

Honako hauek aldatuko dira: HAPOaren 1.5.2.11 artikulua, hau da, araudi orokorra, eta P5.2 planoak ("Zonakatze xehatua. Azpizonak"), P6.1 eta 2 planoak ("Eraikuntzaren baldintzak") eta P8.1 eta 2 planoak ("Lerrokadurak. Kotak").

Proposatzen da zuzentzea ordenantzaren hirigintzako parametro batzuk, hain zuzen ere hasieran indarrean sartutako irizpideak eremuko egungo egoerarekin bat ez datozenak, batez ere erabilera aldaketengatik, araudi berriaren aplikazioarengatik (bizigarritasunari buruzkoa, batik bat) eta baldintza estetikoaren aldaketengatik, errazago bete ahal izan daitezen.

Halaber, "eraikuntzaren baldintzak" aldatu nahi dira, batez ere 1/245 eta 1/246 lurzatietakoa zona libreetakoak, bai eta 1/247 lurzatiko eraikinak dauden zonakoak ere. 1/247 lurzatiko zona librean eta 1/244 lurzatiak ez da ezer aldatuko.

Proposatzen da aldaketak egitea “Estalkiak”, “Fatxadetara irekitako patioak, etxadikoak eta lurzatikoak” eta “Estetika arauak” ataletan, malguago jokatzeko erabil daitezkeen teilekin eta estalkiko beste material batzuekin, eragin bisualaren azterketa eginez gero.

1.2. Ebaluatzen den eremu geografikoa:


Aldaketa puntual honen xede den eremua Elciegon dago.

Lurzatiak Elciegoko Extramuros Sur kaleko 1., 3., 5. eta 7. zenbakietan daude, hirigunearen hegoaldean; hauek dituzte mugakide: iparrean, 1/243 lurzatiko plaza; ekialdean, A-3210 errepidea; mendebaldean, Mayor ibaia; hegoaldean, A-3210 eta A-3212 errepideen arteko lotunea. Hori guztia atxikitako kokapen planoan ikusten da.

1/245, 1/236 eta 1/247 lurzatietako sarbideak hegoaldean daude, eta 1/244 lurzatikoa ekialdean; 1/247 lurzatiko patiora ere hortixe sartzen da. Aldatuko den eremuaren azalera: 1.592,00 m².



Ondoko planoan zonifikazio xehakatuaren egungo egoera ageri da, azpizonak zehaztuta.



1.3. Aztertutako aukerak:

0 aukera: Antolamendua ez aldatzea.

Sustatzaileak azaldu duenez, lurzati horien kalifikazio xehatua ELC.13 Ekialdeko upategi industrialen eremuko b.2.2 "Upategi industrialen industria bereziak" azpizonan mantenduz gero, ezin izango lirатеke integratu beren ingurunean (mehelinen arteko eraikinak, batez ere artisau upategi modura erabiltzen direnak) eta ezin izango litzateke eratu zona funtzional bateratua. Aukera honek egun indarrean dagoen hirigintza plangintzarekiko desadostasuna iraunaraziko luke; beraz, baztertu egiten da.


1. aukera: Lurzatien kalifikazio xehatua aldatzea eta b.2.1 izatea, ELC.13 eremuan mantenduta.

Kalifikazio xehatua aldatuko litzateke: b.2.2 dena b.2.1 bihurtu. Horrela lurzati horiek ingurunean integratuta geratuko lirатеke eta zona horren funtzioa bat etorriko litzateke gainerako eraikinen funtzioarekin, eta ordenantza berriak aukera emango luke garapenerako hirigintza baldintza berak aplikatzeko. Hala ere, ELC.13 eremuaren barruan geratuz gero, ezain izango lirатеke bete helburuak, zeren eta ukitutako lurzatietan ez baitago upategi handirik.

2. aukera: Lurzatien kalifikazio xehatua aldatzea eta b.2.1 izatea, eta ELC.13 eremutik ELC.12 eremura pasatzea.

Aldatu nahi diren 1/244, 1/245, 1/246 eta 1/247 lurzatiak ezaugarriak bateragarriagoak dira ELC.12 Barrihuero - Laguardiako errepidea eremuaren helburuekin, batez ere ingurunean integratzeari dagokionez. Halaber, b.2.1 azpizonak betetzen ditu helburuak: bilbea kontserbatzeko asmoari eta hutsuneak ingurunean integratzen diren tipologiekin osatzeari dagokionez, hausturarik eta elementu diskordanterik sortu gabe.

Hirigintza dokumentuan eta ingurumen dokumentuan azaltzen denez, aldatu nahi diren lurzatietan ez dago upategi handirik, ez industria eraikinik, eta horregatik bidezkoa da b.2.2 ordenantza aplikatzea (ondoko planoan proposatzen den antolamendu xehatuaren esparrua ageri da).



Ingurumenaren ikuspegitik, ingurumen dokumentuan adierazten denez, aukera guztien afekzioa txikia da, eta hautatu denak koherentzia funtzionala dauka, egokiagoa baita ondoko eraikinetarako, ez dira eta upategi industrial handiak. Gainera, horrela lurzatiak bat etorriko dira indarreko antolamenduarekin, aldatuko diren hirigintza parametroek kultura ondarekoak izanik hala katalogatuta dauden eraikin batzuei eragiten baitiete.

2. Kontsulta aldiaren laburpena

Ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozeduraren esparruan, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egiteko fasea hasi zen, araututako prozeduraren arabera. Hona hemen kontsultatu ziren erakunde, entitate eta elkarteen zerrenda, haietatik zeinek erantzun duten adierazita:

Uraren Euskal Agentzia. Agencia Vasca del Agua	√
Eusko Jaurlaritz/Gobierno Vasco. Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza / Dirección de Administración Ambiental	
Eusko Jaurlaritz/Gobierno Vasco. Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egoitzapenaren Zuzendaritza / Dirección de Patrimonio Natural y Adaptación al Cambio Climático	
Eusko Jaurlaritz/Gobierno Vasco. Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritza. Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua.	
Eguzki talde ekologista.	
Ekologistak Martxan Araba	
Gaden	
Hontza	
Gaia elkarte	
Mendizaleen Federazioa. Ingurumen Atala	
Uaga	
Ihobe	
EEE - Energiaren Euskal Erakundea	
Arabako Kontzejuen Elkarte	
Aranzadi Natura Zientzien Elkarte	
Seo Birdlife	
Elciegoko Udala	
Arabako Errioxako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritza	√
Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzua	√

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoak, laburbilduta (alegazio edo adierazpenen kopia osoa: Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 25-75 espediente; <https://irekia.araba.eus/eu/partehartzea/ingurumen-ebaluazioa>:

— URA - Uraren Euskal Agentziak lehenengo txosten bat eman du, eta bertan zehaztu du eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri diola, egokitzen joz gero gaiari buruzko txostena egin dezan, Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean ezarritakoarekin bat etorritik.

Geroago, URAk Plangintza eta Obra Zuzendaritzaren beste txosten bat bidali zuen. Bertan adierazten zuenez, aldaketa puntuala egin nahi den eremuaren mendebaldean Riomayor ibaia dago (39 km²) eta iparraldean, tarte batean elkar estalduta, Rioseco ibaia (12,34 km²). Eremu bi ibai horien polizia eremuaren barruan dago.

Esanenez, “a priori” ez litzateke egon behar afekzioak Riomayor eta Rioseco ibaien ubideetan. Hala ere, zein hurbil dauden kontuan hartuta, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregulamenduaren (JPHE) 6. eta 7. artikuluetan xedatzen denarekin bat etorritik, zortasun eremuan ezin eraiki izango da ezer, eta hango ur bazterreko landaredia errespetatu beharko da.

Rioseco ibaiaren lurpeko tarteko zortasun eremuan dauden eraikinak direla eta, Uraren Euskal Agentziaren irizpideen arabera:

“Oro har, eraikin horietan jarduteko baimenek ez diote kalterik egin behar zortasunaren eraginkortasunari, ez dute narriatu behar ibaiko ekosistemen babesa, eta ez dute larriagotu behar dagoeneko zortasun eremuan okupatutako lurren egoera. Beraz, baimenak eman ahal izango dira eraikin horiek mantentzeko, eraberritzeko edo konpontzeko lanak egiteko, honako hauek, besteak beste:

- Estalkia aldatzea, bolumena handitu gabe.
- Kanpoko paramentuak emokatzea edo pintatzea, kanpoko egitura edo taxuera aldatu gabe.
- Barruko taxuera aldatzea.

Riomayor ibaiaren eta eraikuntza lerroaren arteko 10,00 metroko distantzia, 245 lurzatiko eraikinetan bete behar dena, dela eta, URAREN iritziz ez litzateke aldatu behar planoetan, kontuan eduki behar delako LPSan halako tarteen aplikazioaz ezartzen dena loteslea dela.

Halaber, Rioseco ibaiaren tarte estalian ere ubidearen eta eraikinen arteko tarteak irudikatu beharko da, zeren eta, aurrean aipatu den bezala, lurpeko edo estalitako tarteak ere JPHkoan daude.

URAK azpimarratu duenez, JPHan edo hori babesteko eremuetan (zortasun eremuak eta polizia eremuak) egin nahi diren jarduketak guztietarako Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren baimena beharko da. Baimen horiek Uraren Euskal Agentziak izapidetuko ditu.

Uholde arriskua dela eta, URAK ez dauka Riomayor eta Rioseco ibaiei buruzko azterlanik hizpide dugun eremuan. Proposatzen den aldaketarekin ez da aurreikusten garapenik egitea, baina gogoan eduki behar da ezen, jarduketarik eginez gero, balitekeela azterketa hidraulikoa aurkeztu behar izatea bidezko obra baimena lortzeko edo antolamendu xehatua onartzeko. Azterketa horren helburua izango da ziurtatzea egin nahi diren jarduketek ez dutela eraginik edukiko korranteetan eta aurreikusitako erabilerak bateragarriak direla Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduko araudiarekin.

Hornidurari dagokionez, HAPOan egin den aldaketaren ondorioz egungo beharrianak ez lirateke gehitu behar; nolana ere, hirigintzako izapidetzaren barruan Ebroko Konfederazio Hidrografikoak ebazpena eman beharko du, ULTBaren 25.4 artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz.

Halaber, proposatzen den aldaketak ez du eragingo saneamendu karga berririk.

— Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzaren ustez, plan partzialaren 2. aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basogintzaren Arloetako Lurralde Planaren eremutik kanpo dago (plan hori irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko; 2014ko urriaren 17ko EHAA), bai eta mendien araudi sektorialaren eremutik kanpo ere.

— Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak adierazi duenez, antolamenduaren aldaketa puntual honek eragina edukiko du ondare historikoan: 245 eta 246 lurzatietan dagoen eraikina ukitzen du, eta horrek udalaren babesa dauka eta bere fitxa dauka (zk.: 60) Elciegoko HAPOko Ondasun eta Eremu Babestuen Katalogoan. Horregatik, zerbitzu honen ustez kontuan eduki behar da honako hau:

“Elciegoko Ondasun eta Eremu Babestuen Katalogoan 245 eta 246 lurzatietako eraikinaz ezartzen dena bete beharko da: eraikin horretan ezin ipini izango da terrazarik estalkietan, eta estalkietan ezin erabili izango da kobrerik, ez zinkik, ez alabastrorik/harri zeharrargirik, kanpoko itxura aldatuko bailukete.

— Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuak adierazi duenez, aldaketa puntualaren eremua ez dago Natura 2000 Sareko babestutako naturagune batean, baina bai uhalde enararen banaketa naturaleko eremuan eta usapal europarraren lehentasunez esku hartzeko 1. mailako eremuan dago (lehenengo espeziea “zaugarria” da Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoaren arabera, eta bestea “desagertzeko arriskuan” dago). Esan du Riomayor ibaiko urertzetako landaretza eta ezpondak errespetatu behar direla.

3. Ingurumen balorazioa. Ingurumen inpaktu nagusiak

Aldaketa puntualaren eremua biribilgune motako lotune baten ondoan dago; bertan hiri barruko bide batzuek bat egiten dute A-3210 errepidearekin, eta ingurua, oro har, oso urbanizatuta eta antropizatuta dago, eta inguruan etxebizitzak eta upategiak daude. Inguruan ez dago katalogatutako naturagune babesturik: Ebro ibaiaren KBE 1,5 km-ra dago, gutxi gorabehera, Kantabriako mendilerroko KBE/HBBE 8 km-ingurura dago, iparraldean.

Aldaketa puntualaren eremuko ingurumen zaurgarritasun handieneko elementua Riomayor ibaiaren tartea da (39 km²), Rioseco ibaiadarrak (12,34 km²) harekin bat egiten duen tokian (ezker aldean); erreka hori A-3210 errepidearen eta hiriguneko plaza baten azpitik pasatzen da biek bat egiten duten hurbileko tartean. ELC.13 eremuko eraiki batzuk (eremu hori ELC.12 eremuan sartzea proposatzen da) Riomayor ibaiko ubidearen mugakideak dira. Ibai hori ere lurperatuta dago 65 bat metroko tarte batean, A-3210 errepidearen azpian.

Aldaketaren eremuan, Riomayor ibaiko urertzeko landaretza ondo garatuta dago: makalak dira nagusi (*Populus nigra*), eta espezie exotikoak daude, are inbaditzaileak ere, hala nola ailantoa (*Ailanthus altissima*). Espezie autoktono hauek daude: astigarra (*Acer pseudoplatanus*), lizarra (*Fraxinus excelsior*), sahatsa (*Salix spp.*), intsusa (*Sambucus nigra*), eta abar.

EAEko Igarobide Ekologikoen Sarearen arabera (Ingurumen Zuzendaritza – Eusko Jaurlaritza – 2006), Riomayor eta Rioseco ibiak interes konektore bereziko ibai tarreak dira.



Proposatzen den antolamenduaren aldaketak eragina eduki lezake Mayor ibaian, horren ubidearen eta eraikinen lerroaren artean egon beharreko 10,00 metroko gutxieneko tartea aldatu nahi baita. Aldaketa puntualaren eremuan, 10 metroko lur zerrenda horretan, 245 lurzatian katalogatutako etxebizitza erabilerako eraikin bat dago. URA Uraren Euskal Agentziak esan duenez, nahiz eta eraikina mantendu, ez litzateke aldatu behar 10,00 metroko tartea, eta plano guztietan agertu behar litzateke, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak ezartzen dituen zehaztapen lotesleen arabera. Beraz, hori zuzendu behar da eta nahitaez mantendu behar da 10 metroko gutxieneko tartea, administrazio hidrauliko eskudunak adierazi duen bezala.

Aurrerantzean ere eremua konektorea izango bada, ezinbestekoa da ondo mantentzea Riomayor ibaiko landaretza naturala, eta horretarako ibaiaren eta eraikinen arteko tartea mantendu behar dira eta kontu handiarekin egin behar dira eremuko eraikinak hobetzeko lanak. Halaber, HAPOaren aldaketa puntualaren hirigintzako araudian ezarri beharko da ibaiaren ondoan hazitako landare exotiko inbaditzaileak, aianta batzuk (*Ailanthus altissima*), ezabatu behar direla.

Aldaketa puntualaren eremu oso antropizatuan nagusi diren animalia espezieak eta komunitateak hirigunearekin lotuta daude, eta Riomayor ibaiko urertzeko landaretzak ere badauka eragina. Eta horregatik, urertzeko landaretza dela eta, kontuan eduki behar da eremua uhalde enararen (*Riparia riparia*) banaketa naturaleko eremuan eta usapal europarraren (*Streptopelia turtur*) lehentasunez esku hartzeko 1. mailako eremuan dagoela (lehenengo espeziea "zaurgarria" da Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoaren arabera, eta bestea "desagertzeko arriskuan" dago). Hori dela eta, gaur egun, eragiketak hasi aurretik, nola dagoen kontuan edukita, aldaketa puntualak ez du eragin handirik edukiko.

Sustatzaileak aurkeztutako ingurumen dokumentuan Riomayor ibaiko uraren kalitatearen arazo batzuk aipatzen dira: makroornogabeen komunitatearen parametro batzuk aldatuko dira, bai eta ubideko egoera biologikoa eta ekologikoa ere. Azken urteetan, kalifikazioa "moderatu" izan da. Behar baino amonio eta fosfato gehiago dago, karga organikoa handiegia da, eta arazoak daude oxigeno saturazioarekin.

Arau estetikoetan egin nahi diren aldaketek ez dute eraginik edukiko ingurumenean; beraz, aldaketa horiei ez zaie inolako eragozpenik ipini behar.

Horrenbestez, arretarekin jokatzeko bada eta neurri egokiak ezartzen badira, proposatzen den aldaketa puntualak azaleko uretan, landaretzan, fauna basatian eta paisaian edukiko dituen inpaktuak bateragarriak edo moderatuak izango dira.

Kultura ondarearen gaineko eraginaz denaz bezainbatean, proposatzen den aldaketak ukitzen dituen eraikinetako bat "Udalak babesteko proposatutako ondasun higiezin" da, Kultura Ondarearen Zentroko datu basean agertzen den bezala. 60. ondasun higiezin da, "ostatu zaharra".

Aurrean adierazi den bezala, eraikin hori Mayor ibaiko ubidearen eta eraikinen lerroaren arteko 10 metroko tartean dago, hau da, ez dator bat antolamenduarekin. Hori dela eta, berriz ere URA Uraren Euskal Agentziak egindako txostena aipatu behar da: bertan organo sektorialak adierazten du eskatu behar dela planoan agertzeko 10 metroko gutxieneko tartea, eta adierazten du hori bateragarria izan litekeela katalogatutako eraikinaren kontserbazioarekin.

Gainera, txosten horretan, horniduraz ari dela, URAk adierazten du HAPOan egin den aldaketaren ondorioz egungo beharrianak ez liratekeela gehitu behar. Gainera, saneamendu karga berriak ere ez da sortuko.

Azkenik, aldaketa puntual honen helburuek (etxebizitza erabileren, turismo erabileren eta upategien erabileren arteko bategarritasuna bultzatzea eta upategi tradizional txikiek hirigunean irautea) ez zaie inolako ingurumen eragozpenik ipini behar.

4. Ingurumen baldintzak

Ingurumen dokumentu estrategikoan (10. apartatua) ingurumen jarraipenerako ezartzen diren neurrien osagarri, aldaketa puntualaren hirigintza dokumentuan kontuan eduki beharko dira:

A) Hirigintza dokumentuaren araudian berariaz ezarri beharko da nahitaez bete beharko direla ingurumen dokumentuan eta ingurumen txosten estrategiko honetan biltzen diren zehaztapen teknikoak, babes eta zuzenketa neurriak eta planaren ondorioak gainbegiratzeko programa.

B) URA Uraren Euskal Agentziak egindako alegazioen txostenean adierazitakoari jarraikiz, planoetan Riomayor ibaiaren eta eraikinen arteko 10 metroko gutxieneko tartea mantenduko da. Hori bat dator EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze LPSak ezartzen dituen zehaztapen lotesleekin.

C) Riomayor ibaiko urertzetako espezie aloktono inbaditzaileak ezabatuko dira, batez ere ailantoa (*Ailanthus altissima*).

D) Landare espezie aloktono inbaditzaileak ezabatu ondoren, Riomayor ibaiko urertzetako ingurumena lehengoratzeko lanik eginez gero, landare autoktonoak errespetatu beharko dira, eta zuhaitz apaingarri handiek ere bai; debekatuta dago espezie aloktonoak erabiltzea. Zuhaitza eta zuhaitz espezie autoktonoak baino ezin izango dira erabili, ahal dela ingurukoak edo ziurtatuak, eta bateragarriak izan behar dira inguruko landaretza serieekin eta eremuko erregimen hidrikoarekin. Landareztatze lanetan erabiltzen diren lurrak nongoak diren kontrolatu beharko da, lore espezie inbaditzaileak barreiatzea eragozteko.

E) 244, 245, 246 eta 247 lurzatien kalifikazioa aldatu eta ELC.12 Barrihuelo - Laguardiako errepidea eremuan sartzearen ondorioz egiten diren jarduketetan eta lanetan honako hauek aplikatuko dira:

- Riomayor ibaitik gertu ezin da ezarri ez zerbitzugunerik, ez makineria parkerik, ez eta kutsagarriak izan daitezkeen produktuak pilatzeko eta biltegiratzeko eremurik ere. Nahitaezko prebentzio eta zuzenketa neurriak ezarriko dira, ustekabeko isurketek eraginik izan ez dezaten, bereziki makinak mantendu behar direnean, eta ingurunean hondakinik egon ez dadin.

- Ontzi estankokoak, andel iragazgaitzak edo bestelako sistema alternatiboak jarri beharko dira lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegiratzeko. Debeakuta dago jada erabilia daudenak isurtzea, eta kudeatzaile baimenduari emango zaizkio. Debeak hori hauetara ere hedatzen da: hormigoi hondakinak, eraikuntza materialak, asfaltoak, lurrak eta abar; horiek guztiak hondakindegia edo zabortege baimenduetara eramane beharko dira. Eraikuntza eta eraispene hondakinak sortzen badira, Eraikuntza eta eraispene hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko den ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatu beharko dira.

F) Araba Klima 2050 estrategiarekin bat etorritik (Arabako Biltzar Nagusiek 2022ko uztailaren 18an onartu zuten), batez ere 3. helburuarekin (Lurralde antolamendu eta hiri egitura efizienteak eta klima aldaketara egokituak) eta 7. jarduketa lerroarekin (Eraikinen efizientzia energetikoa bultzatzea), sektorearen garapenean helburua izan behar da efizientzia energetiko handiko eta ingurumen azterna txikiko hiri eredua sendotzea.

Horretarako, eraikuntza soluzio bioklimatikoak aplikatuko dira, hain zuzen ere eraikinen inguratzaile termikoa optimizatu eta energia eskari pasiboa murrizten dutenak. Kanpoaldean argirik ipini behar izanez gero, efizientzia handikoak eta kontsumo urrikoak izan beharko dira. Halaber, lehentasuna emango zaie energia sortzeko iturri berriak erabiltzen dituzten in situ sistemei, inguruabar teknikoek aukerarik eman ez gero, energiaren autokontsumoa sustatzeko eta eremuko deskarbonizazioan aurrera egiteko, eta hori guztia lehen aipatutako estrategian ezartzen diren helburuak gogoan edukita.

Ondorioz, Ekonomia Garapenean eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatu gisa dauzkadan eskumenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Elciegoko udalerriko (Araba) Hiri Antolamendurako Plan Orokorren aldaketa puntualari buruzko ingurumen txosten estrategikoa egitea. Horren arabera honako hauek aldatzen dira: ELC.13. Ekialdeko upategi industrialeko eremuko 1/244, 1/245, 1/246 eta 1/247 lurzatien kalifikazioa, A-3210 errepidearen gaineko afekzioak, eta "Hirigune zaharretako upategien industria bereziko B.2.1 azpizoneko eraikuntzari eta erabilerari buruzko ordenantza orokorraren" alderdi batzuk.

Bigarrena. Ingurumen txosten estrategikoa nahitaezko txosten loteslea da, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.1 artikulua ezartzen duenaren arabera.

Hirugarrena. Ingurumen txosten estrategikoak indarra galduko du eta berezko ondorioak sortzeari utziko dio plana ez bada onartzen argitaratu ondoko lau urteetan, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.5 artikulua aintzat hartuta. Kasu horretan, aipatutako legearen 75.6 artikulua arabera, sustatzaileak berriro hasi beharko du planaren aldaketaren ingurumen ebaluazioaren izapidea, kasu honetan izan ezik: ingurumen organoari indarraldia luzatzeko eskatzen badio. Kasu horretan, ingurumen organoak, bidezkoa bada, beste indarraldi bat emango dio ingurumen txosten estrategikoari (erregelamenduz eza-rriko da nola egin behar den hori).

Laugarrena. Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 32. artikuluan ezartzen duen bezala, planaren aldaketa onartzen denetik hamar egun baliodun igaro baino lehen, organo substantiboak, hau da, Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamendua-ren Sailak honako dokumentazio hau bidaliko du, ALHAOn argitaratzeko:

a) Planaren aldaketa onartzen duen ebazpena eta organo substantiboak haren eduki osoa herritar guztien eskura ipiniko duen helbide elektronikoa edo, bestela, dokumentazioa eskura-garri egongo den organo sustatzailearen helbide elektronikoa.

b) Ingurumen txosten estrategikoa argitaratu den ALHAOn erreferentzia.

Bosgarrena. Ebazpen honen berri zabaltzeko, ALHAOn eta Arabako Foru Aldundiko Eko-nomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Sailaren egoitza elektronikoan argitaratuko da.

Seigarrena. Ebazpen hau Elciegoko Udalari eta Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antola-menduaren Zuzendaritzari jakinaraziko zaie.

Zazpigarrena. 21/2013 Legearen 31.5 artikuluekin bat etorriz, ingurumen txosten estrategiko honi ezin zaio aurkeztu errekurtsorik. Nolanahi ere, bide judizialean errekurtsuak aurkeztu ahal izango dira plana edo programa onartzen duen xedapen orokorraren aurka edo, bide adminis-tratiboan, errekurtsuak aurkeztu ahal izango dira plana onartzen duen egintzaren aurka.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 28a

Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatua
SARAY ZÁRATE FERNÁNDEZ DE LANDA

Natura Ingurunearen zuzendaria
MARIA JOSÉ MADEIRA GARCÍA